donostiakultura.com

# ESKOLATIK ANTZOKIRA

2016/2017

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

DSS2016.EU

Badira urte batzuk Eskolatik Antzokira proiektua martxan jarri genuela. Duela sei urte, Donostia Kulturan iruditu zitzaigun arte eszenikoak etorkizuneko ikusleei hurbiltzea oso modu interesgarria zela gazteenei eszenarekiko eta bertatik bertarako arteekiko maitasuna txertatzeko. Hazi ahala, neska-mutikoek batera ikasten dutela bizitzen eta antzerkia, dantza, zirkua... ezagutzen eta egiten, eta hartara lokarriak sendotzen dituztela Artearekin bizitza osorako. Sorkuntza artistikoarekin batera hazten badira, oso balio eta kontzeptu garrantzitsuak emango dizkie hark gazteenei beren garapen-prozesuan. Gainera, testua duen antzerkiaren kasuan, ezin ahaztu hizkuntzaren osagaia ere. Euskara protagonista nagusi bihurtzen da hala.

Urteok pozbide handia eman digute. Bataz beste, bi urtetik hemezortzi urtera arteko 6.000 ikaslek hartu dute parte urtero Eskolatik Antzokira programan. Edizioren batean parte hartu duten ikastetxeek jarraitu egin dute ondorengo edizioetan, eta, beraz, frogatuta dago proiektuak asmatu egin duela eta interes handia piztu duela.

Aurten, kalitate egiaztatuzko programa erakargarri bat aurkezten dugu. Bi urtetik gorako haurrentzako ikuskizun batek emango dio hasiera edizio honi; ***Kontukontari*** du izenburua, eta Laenananaranja konpainiarena da.

Ikuskizun honen xedea txikienak txotxongilo- eta objektu-antzerkira hurbiltzea da, musikaren eta euskal herri-kanten bidez, baina beste zenbait musika-estilotan emanda: rap, blues, reggae... Musika-ikuskizun bat, jolasean ikasteko.

Lau urtetik gorakoentzat, ***Azken portua***, Dejabu Panpin Laboragetiarena. Txotxongiloen eta aktoreen ikuskizuna, zuzeneko musika duena, eta sentiberatasun eta txera handiz tratatzen duena euskal arrantzaleen mundua.

***Superheroia*** sei urtetik gorakoentzat . El Perro Azul konpainia errioxarrak harritu egingo gaitu maskaren eta txotxongiloen ikuskizun berri batekin. Saria jaso zuen Feten 2015 jaialdian, pertsonaien konposizioagatik eta gorputz-maskaren konbinazioagatik. Argiztapen zainduak eta eszenaratze finak irudimenezko mundu batera eramango gaituzte; oso mundu errealera, bestalde: norbera izaten ikastearen mundura.

Zortzi urtetik gorakoentzat, ***Zapatila gorridun mutikoa***, dantza-antzerkizko ikuskizun bat, testurik gabea. Sexualitatearen askotarikoa errespetatzen irakastea du xedea, hau da, tolerantzia irakastea. Bokazioaz eta sexu-identitateaz ari da, umorearen bidetik. Haurrek berdintasuna sustatzen duten istorioak ezagutzeko duten premiari erantzuten dio lanak; bizi diren munduko aniztasun afektibo-sexuala ulertzen lagunduko dieten istorioak. Kontua ez da desberdintasunak nabarmentzea, baizik eta haurrek ulertzea jende desberdina beste edonor bezala bizi dela.

*Bivouac* zirku-konpainia frantsesak ***A corps Perdus*** aurkeztuko du hamabi urtetik gorakoentzat . “Mugalariak” programari eta ESZENA T proiektuaren lankidetzari esker –Scène Nationale du SubAquitain (Bayonne) eta Victoria Eugenia Antzokiak gidatzen dute proiektu hori–, ikuskizun honen areto-estreinaldiaz gozatzeko aukera izango dugu. Zuzeneko musika du, eta antolakuntza eszenografiko harrigarria.

Azkenik, aurten euskal konpainien bi proposamen interesgarri izango ditugu 14 urtetik gorakoentzat. Vaivén Teatrok 1942ko Varsoviako umezurztegi batera eramango gaitu *Treblinkara azken trena* obrarekin. Ikus-entzuleek parte hartuko dute horretan, beren ohe-literetan egongo baitira, umezurztegiaren azken egunean, eta hartara parte hartuko dute barne-antolamenduan, eguneroko errutinan, hango beldur eta alaitasunetan...Ikus-entzuleak epaiketa baten lekuko izango dira, non jakinarazpen izugarri batek amaiera emango baitie hango ametsei, bizitzari: umezurztegitik alde egin behar dute, eta tren bat hartu, Treblinkako kontzentrazio-esparrura eramango dituen trena.

Eta, azkenik, **Txalo** konpainia, ***Jainko basatia*** lanarekin. Komedia dramatiko bat non bi bikote biltzen baitira modurik gizabidetsuenean konpontzeko bietako baten semeak bestearen eskutik jasan duen erasoa. Baina zuzentasun zurruna desegiten denean, frustrazioa eta miseriak agertuko dira, eta komedia garratz eta iluna agertuko da.

Programazioa askotarikoa da, eta espero dugu denen interesa piztuko duela.

### Ikuslearen prestakuntzarako iradokizunak

Antzerkira datozen irakasleei aukera ematen jarraitzen dugu, beren lan pedagogikoan esperientzia horretaz balia daitezen. Horretarako, ikuslearen prestakuntzarako gida batzuk egingo dira: hautaturiko ikuskizunari buruzko gogoetak eta informazioak, eta antzerki-lana ikusi aurretik edota ondoren ikasgelan egiteko jardueren proposamenak. Horiez gainera, ikusleari emozioak adierazteko bidea emango dioten iradokizunak.

Ya hace varios años pusimos en marcha el proyecto Eskolatik Antzokira. Acercar las artes escénicas a los espectadores del futuro nos parecía desde Donostia Kultura una manera muy importante de inculcar a los más jóvenes el amor por lo escénico, por las artes en vivo. Nos parecía que según iban creciendo las niñas y niños compartían, implementaban su aprendizaje en la vida con el teatro la danza, el circo... creándose un vínculo sólido entre ellas y ellos con el Arte que se perpetuará durante toda su vida. Si van creciendo acompañados de la creación artística, ésta aportaría en su educación y desarrollo valores y conceptos muy importantes en el desarrollo personal de los más jóvenes. Además, en el caso del teatro de texto, se incorpora el ingrediente del idioma. El euskera se convierte así en un protagonista principal.

Estos años nos han dado muchas satisfacciones. 6.000 alumnos de media anual han venido participando en Eskolatik Antzokira en franjas de edades que comienzan desde los dos años hasta los dieciocho. Cada centro escolar que ha participado en una edición ha seguido manteniendo su presencia en las siguientes con lo que valoramos el acierto y el interés suscitado por el proyecto.

Para esta edición se presenta un atractivo programa de calidad contrastada que arranca con un espectáculo dirigido a niñas y niños a partir de 2 años, ***Kontukantari*** de la compañía Laenananaranja. Este espectáculo pretende acercar a los más pequeños al teatro de títeres y objetos, a través de la música y canciones populares vascas, pero versionadas en diferentes estilos musicales; rap, blues, regge...
Un espectáculo musical, para aprender jugando.

A partir de 4 años, ***Azken portua***, de Dejabu Panpin Laborategia, es un espectáculo de títerés y actores, con música en directo, que trata con mucha sensibilidad y cariño, el mundo de los pescadores vascos.

Para niñas y niños mayores de 6 años, ***Superheroia***. La compañía riojana el Perro Azul, nos sorprenderá con su novedoso espectáculo de máscaras y títeres, que fue premiada en Feten 2015, por la composición de personajes y la combinación de cuerpo y máscara. La cuidada iluminación y la delicada puesta en escena, nos trasladarán a un mundo imaginario, pero muy real: el de aprender a ser uno mismo.

A partir de 8 años, ***Zapatila gorridun mutikoa***, un espectáculo de danza-teatro, sin texto, cuya intención es contribuir al respeto a la diversidad sexual, a la tolerancia. Habla de la vocación y de la identidad sexual, en clave de humor. La obra da respuesta a la necesidad de niños y niñas de conocer historias que fomenten la igualdad y les ayuden a comprender la diversidad afectivo-sexual del mundo en el que viven. No se trata de destacar las diferencias, sino de que los niños entiendan que la gente diferente vive como cualquier otra persona.

Para mayores de 12 años, La compañía de circo francesa Bivouac presentará ***A corps Perdus***. Gracias al programa “Mugalariak” y a la colaboración del proyecto ESZENA T, liderado por la Scéne Nationale du Sub-Aquitain (Bayonne) y el Teatro Victoria Eugenia, podremos disfrutar del estreno en sala de este espectáculo, que cuenta con música en directo y una instalación escenográfica sorprendente.

Por último, este año contaremos con dos propuestas interesantes de compañías vascas para público a partir de 14 años. Vaiven Teatro nos trasladará a un orfanato de la Varsovia de 1942 con la obra ***Treblinkara azken trena***. Una obra en la que los espectadores serán parte de aquellos habitantes, ya que estarán aposentados en sus camas-litera, el último día de este orfanato, siendo así, partícipes de su organización interna, de su rutina diaria, de sus miedos y alegrías... El público será testigo de uno de sus juicios donde una terrible notificación acabará con sus sueños y su existencia: deben abandonar el orfanato y dirigirse al tren que les llevará al campo de concentración de Treblinka.

Y finalmente, la compañía Txalo con su obra ***Jainko basatia***, una comedia dramática en la que dos matrimonios se reúnen para solucionar de manera cívica la agresión que ha sufrido el hijo de uno de ellos a manos del otro. Pero cuando la esforzada corrección se derrumba, aparecen la frustración y las miserias dando lugar a una comedia ácida y con muy mala leche.

Una programación variada que esperemos sea de gran interés para todos.

### Sugerencias para la formación del espectador

Continuamos posibilitando al profesorado que acude al teatro un aprovechamiento pedagógico de la experiencia. Para ello, se elaborarán unas guías de formación del espectador que incluyen reflexiones e informaciones sobre el espectáculo seleccionado, y propuestas de actividades para realizar en el aula antes y/o después de asistir a la representación. Además de sugerencias que permitan la expresión de las emociones del espectador.

**Laenananaranja**-k aurkezten du / presenta

# KONTUKANTARI

+2 URTE / AÑOS

Kontukantarik oroimenean dauzkagun abestiak biltzen ditu, hauek reggae-a, rap-a edo bluesa bezalako erritmo desberdinetara eramanez. Protagonista bihurtzen diren txotxongiloen laguntzarekin, bidaia honetan, Sandrak eta Botik, betiko abestiak berrikusten dituzte, nagusiek ahaztu ez ditzaten eta txikiek ikas ditzaten. Eta honela, Arratoitxoak itsasontzi batera igotzen, lanera joan nahi ez duten Txonbo eta Ziku, edo Nana eta Granu azokan txakur bat erosten ikusiko ditugu. Musikaz eta txotxongiloen mundu magikoaz gozatzeko aukera paregabea.

Kontukantari recoge las canciones que tenemos en nuestra memoria llevándolas a otros ritmos desde el reggea, pasando por el rap o el blues. Sandra y Boti hacen un repaso a las canciones de siempre, para que los mayores no las olviden y los pequeños las aprendan, y los títeres les acompañan en este viaje convirtiéndose en los protagonistas. Y es así como veremos a dos ratitas montando en un barco mientras Txonbo y Ziku no quieren ir a trabajar o a Nana y Granu comprando un perro en la feria. Una oportunidad para disfrutar de la música y el mágico mundo de los títeres.

**VICTORIA EUGENIA CLUB**
**Maiatza 23-26 Mayo**
**09:30 - 11:00**
**50 min | Euskaraz**



Musikaria / Músico
**Roberto Castro "Boti"**
Abeslaria / Cantante
**Sandra Fdz. Aguirre**
Panpin eragileak / Manipuladoras y manipuladores de marionetas
**Itziar Fragua, Iñigo Eibar, Marta Alvarez**
Musika moldaketak / Adaptación musical
**Roberto Castro, Antxon Sarasua**
Argiztapena / Iluminación
**Victor Palacio**
Soinu teknikaria / Técnico de sonido
**Mikel Izquierdo**
Ekoizpena / Producción
**Laenananaranja**

**Dejabu panpin laborategia**-k aurkezten du / presenta

# AZKEN PORTUA

+4 URTE / AÑOS

**GAZTESZENA - EGIA**
**Apirila 4-6 Abril**
**09:30 - 11:00**
**50 min | Euskaraz**

Zuzendaritza / Dirección
**Dejabu**
Antzezleak / Intérpretes
**Urko Redondo, Ainara Gurrutxaga / Miren Alkala**
Musikaria / Músico
**Ander Fernandez**



Didi eta Gogo dira Azken Portuko biztanle bakarrak, eta denbora luzea da ez dutela barkurik ikusi itsaso zabaletik portura iristen. Gogo zaharrak ez du jada egun hura gogoratzen.
Dena den, Didi gaztearen jakinminak Gogoren oroitzapenetan murgiltzera eramango gaitu, eta Euskal Herriko arrantzaleen garaiak, Enbata barkuaren azken bidaia eta Krixpin gaztearen abentura zoragarriak biziko ditugu.

Didi y Gogo son los únicos habitantes de Azken Portua, el último puerto. Hace muchísimo tiempo que no han visto a ningún barco llegar desde la mar. Gogo ni se acuerda de aquellos tiempos en que el puerto era visitado por barcos de todo el mundo.
Pero la curiosidad de la joven Didi hará que buceemos en las memorias del viejo pescador, y conozcamos las aventuras del barco Embata, los peligros que padecían en aguas lejanas los pescadores y la historia de Krispin, aquella niña que un día se perdió en la mar.

El perro azul Teatro-k aurkezten du / presenta

# SUPERHEROIA

+6 URTE / AÑOS

Amonarekin bizi den gazte ameslari bati bisita egin dio argi-teknikariak; ordaintzen ez dutela-eta, argi-indarra kentzen die. Hor abentura zoragarri bat hasiko da: gaztearen borroka, argia berreskuratzeko. Teknikari elektrizista gaizkile ageri zaigu, amona bahitzeko eta planetako argia lapurtzeko gai. Mutilak ahalmen bereziak lortuko ditu amonak ezkutuan utzi zion argiharriari esker. Kaleko argiek neska dantzari sentsual bat erakarriko dute, eta hark ere ahalmen bat emango dio mutilari, azken borrokaldian gaizkilea garaitzeko, amona erreskatatzeko eta etxeko errealitatera itzultzeko. Hau da, ametsetik esnatzeko.
*Superheroiak* galdezka jartzen gaitu errealitateaz eta fikzioaz. Nor da nor? Gaizkilea, neska, amona, superheroia...
*Superheroiak* ispiluaren aurrean jartzen gaitu. Hauxe esaten digu: aukeratzen jakitea, norbera izatea, besterik ez da behar.

Un joven soñador, que vive con su abuela, recibe la visita del técnico de la luz, que les corta el suministro de energía por falta de pago. Este hecho desencadena una maravillosa aventura, en la que el joven lucha por recuperar la luz. El técnico electricista se nos muestra como un villano capaz de raptar a su abuela y robar la luz del planeta. El chico cobra poderes gracias a la piedra de luz, que le dejó escondida su abuela. Las luces de la calle traen a una sensual bailarina, que también le entregará un elemento de poder al joven, para vencer en el último combate al villano, rescatar a su abuela y regresar a la realidad del hogar, despertar del sueño.
*Superhéroe* nos hace preguntarnos, entre realidad y ficción, quién es quién: el malvado, la chica, la abuela, el superhéroe...
*Superhéroe* nos hace mirarnos al espejo. Nos dice: Tan solo hay que saber elegir, ser uno mismo.

**ANTZOKI ZAHARRA**
**TEATRO PRINCIPAL**
**Apirila 19-21 Abril**
**09:30 - 11:00**
**55 min | Euskaraz**

Aktore – manipulatzailea / Actor - manipulador
**Fernando Moreno**
Zuzendaritza eta antzerkigintza / Dirección y dramatización
**Jorge Padín**
Txotxongiloak eta maskarak / Marionetas y máscaras
**Carlos Pérez**
Jatorrizko musika / Música original
**Borja Ramos**
Off ahotsa / Voz en off
**Kepa Errasti**





**Ados Teatroa**-k aurkezten du / presenta

# ZAPATILA GORRIDUN MUTIKOA

+8 URTE / AÑOS

*Zapatila gorridun mutikoak* proposatzen duen istorioa, mutilei egitea gustatu ohi zaien gauzak egitea gustatzen ez zaion mutikoarena da. Berak nahiago du loreak biltzea, margotzea, sokasaltoan aritzea, ganbarako arropa zaharrekin mozorrotzea edota rock & roll izar baten modura abestea. Sarri, zakur berde edota monstruo arrosa baten modura sentituko da. Munduan bere lekua aurkitzeko gai izango ez balitz bezala sentituko da. Bidea ez da beti erraza izango, ezta atsegina ere, baina berak ez du etsiko, bere buruari leial izaten jarraituko du, bere ametsa lortzeko eta horrekin batera, munduan bere lekua aurkitzeko bidea eginez.

La historia que *El chico de las zapatillas rojas* propone es la de un niño al que no le gusta hacer las cosas que supuestamente les gustan a los chicos... Él prefiere coger flores, pintar, saltar a la comba, disfrazarse con las cosas viejas del desván y cantar como si fuera una estrella de rock and roll. Muchas veces Luis se sentirá como un perro verde o un monstruo rosa.Se sentirá incapaz de encontrar su lugar. Será un camino no siempre fácil, ni amable, pero él no cejará en su empeño de ser fiel a sí mismo, de luchar por conseguir su sueño y con él su lugar en el mundo.

**VICTORIA EUGENIA**
**Martxoa 21-23 Marzo**
**09:30 - 11:00**
**60 min | Euskaraz**

Egile eta zuzendaria / Autora y directora
**Garbi Losada**
Jatorrizko musika / Música original
**Javier Asín**
Koreografia / Coreografía
**Bertha Bermudez**
Ekoizpen exekutiboa / Producción ejecutiva
**Jose Antonio Vitoria**
Antzezleak / Intérpretes
**Txori Garcia Uriz**
**Ion Barbarin**
**Montse Zabalza**

**Bivouac Compagnie**-k aurkezten du / presenta

# A CORPS PERDUS

+12
URTE / AÑOS



Egileak / Autores
**Maryka Hassi, Maureen Brown, Benjamin Lissardy**
Musika / Musica
**Erwan Le Guen**
Eszenaratzea / Puesta en escena
**Maryka Hass**
Interpreteak / Intérpretes
**Benjamin Lissardy, Maureen Brown, Charlie Marey, Gaetan Dubriont, Paul Herzfeld, Nhât-Nam Lê**
Eszenografia / Escenografía
**Maureen Brown**
Argiztapena / Iluminación
**Patrick Cathala**

**VICTORIA EUGENIA**
**Martxoa 2-3 Marzo**
**10:30**
**50 min | Testurik gabe / Sin texto**
**Zirko koreografia / Coreografía de circo**

Gure pertsonaiek eraiki nahi duten mundu batek erremediorik gabe erakartzen ditu. Errealitate etsai batetik ihes egiteko saiatzen dira mundu hura eraikitzen, eta beren nahikaririk gorenak eta sakonenak betetzeko.
Mastak lekualdatzea, gauzen ikuspegia lekualdatzen den bezala; espazioa aldatzea, saioak egitea eta ideia berri bat mamitzea, ondoren beste bati ekiteko; biltzen gaituen ikuskizun bat, sorkuntza bat higitze etengabean, egokitze etengabean, dena higitzen baita, dena baita oreka badaezpadako eta ezegonkor, zeinaren zaindari baikara.
Bide bat sortzea, jakinik horretarako ahalegina egin behar dela, baina ahalegin horretan datzala bizitzaren edertasuna.
Masten eta gorputzen lekualdatze bakoitza bestearen bilaketa da, bizitzari eta bizitzaren paradoxei buruzko ikuspuntu baten adierazpena, etsipenetik askatasun-, ekintza- eta sorkuntza -ideal baterantz ihes egiteko saio bat.

Nuestros personajes son irresistiblemente atraídos hacia un mundo que intentan construir para escapar a una realidad hostil y alcanzar sus aspiraciones más altas y más profundas.
Desplazar los mástiles como se desplazaría la visión de las cosas, modificar el espacio, hacer varias tentativas y dar forma a una idea nueva, para después volver a otra, una visión que nos une, una creación en perpetuo movimiento, en perpetua adaptación, porque todo se mueve, todo es un equilibrio precario e inestable del que somos guardianes. Crear un camino, sabiendo que se necesita un esfuerzo, pero que en ese esfuerzo se contiene la belleza de la vida.
Cada desplazamiento de los mástiles y de los cuerpos es una búsqueda del otro, la expresión de un punto de vista sobre la vida y sus paradojas, una tentativa de escapar a la resignación para ir hacia un ideal de libertad, de acción y de creatividad.

**Vaivén Producciones**-ek aurkezten du / presenta

# TREBLINKARA AZKEN TRENA

+14
URTE / AÑOS

1942ko abuztuaren 5a, asteazkena, Varsovia.
Umezurztegi bat, 200 haur judutarren bizilekua. Janusz Kòrczak mediku eta pedagogoak, hango buru zelarik, haur-errepublika zinezko bat sortu zuen bere laguntzaile min Stefania Wilzynskarekin batera.. Haurrekin eskuz esku jardunez, konstituzio bat sortu zuen, bere lege, araudiekin, bai eta bere zigor-kodearekin ere. Ikus-entzuleek parte hartuko dute horretan, beren ohe-literetan egongo baitira, umezurztegiaren azken egunean, eta hartara parte hartuko dute barne-antolamenduan, eguneroko errutinan, hango beldur eta alaitasunetan… Ikus-entzuleak epaiketa baten lekuko izango dira, non jakinarazpen izugarri batek amaiera emango baitie hango ametsei, bizitzari: umezurztegitik alde egin behar dute, eta tren bat hartu, Treblinkako kontzentrazio-esparrura eramango dituen trena.

*Emanaldiaren ondoren 30 minutuko solasaldia izango da.

Miércoles 5 de agosto de 1942, Varsovia.
Un orfanato con 200 niños judíos, liderado por el doctor y pedagogo Janusz Kòrczak, junto con su inseparable colaboradora Stefania Wilczynska, formó allí una verdadera república infantil. Trabajando mano a mano con los niños creó una constitución con sus leyes, reglamentos y también un código penal.
Los espectadores serán parte de ellos, ya que estarán aposentados en sus camas-litera, el último día de este orfanato, siendo así, partícipes de su organización interna, de su rutina diaria, de sus miedos y alegrías…
El público será testigo de uno de sus juicios donde una terrible notificación acabará con sus sueños y su existencia: deben abandonar el orfanato y dirigirse al tren que les llevará al campo de concentración de Treblinka.

*Finalizada la representación
tendrá lugar un coloquio de 30 minutos.

**LARRATXO K.E.**
**Urria 4, 11, 18 Octubre**
**10:30**
**75 min | Euskaraz**

Jatorrizko ideia / Idea original
**Ana Pimenta**
Zuzendaritza / Dirección
**Mireia Gabilondo**
Testua / Texto
**Patxo Telleria**
Zuzendari laguntzailea / Ayte. Dirección
**Kepa Errasti**
Eszenografia / Escenografía
**Fernando Bernués**
Interpreteak / Intérpretes
**Alfonso Torregrosa / Jose Ramon Soroiz, Maiken Beitia, Eneko Sagardoy, Gorka Martin, Tania Martin, Nerea Elizalde, Jon Casamayor, Mikel Laskurain, Kepa Errasti**



Txalo Produkzioak-ek aurkezten du / presenta

# JAINKO BASATIA

+14
URTE / AÑOS

*Jainko Basatia* komedia dramatikoa da. Bi bikote ezkondu elkartzen dira euren seme-alaben arteko liskarrak konpontzeko asmotan; izan ere, bikote baten semeak besteari eraso egin dio.
Giza-legez eta edukazio handiz abiatu den bilerak beste bide bat hartuko du, elkarri kristonak eta bi esaten hasten direnean, bata eta besteen frustrazio eta mixeriak azalduz.

*Un Dios Salvaje* es una comedia dramática en la que dos matrimonios se reúnen para solucionar de manera cívica la agresión que ha sufrido el hijo de uno de ellos a manos del otro. Pero cuando la esforzada corrección se derrumba, aparecen la frustración y las miserias dando lugar a una comedia ácida y con muy mala leche.

Egilea / Autora
**Yasmina Reza**
Zuzendaria / Directora
**Begoña Bilbao Lejarzegi**
Euskarazko itzulpena / Traducción a euskera
**Martin Agirre**
Aktoreak / Reparto
**Aitziber Garmendia**
**Mikel Losada**
**Tessa Andonegi**
**Andoni Aguirregomezkorta**

**ANTZOKI ZAHARRA**
**TEATRO PRINCIPAL**
**Otsaila 7-8 Febrero**
**10:30**
**80 min | Euskaraz**



# ARGIBIDEA
# INFORMACIÓN

2016/2017 denboraldiko programazioari buruzko informazioa bidaliko diegu ikastetxeei.

Ondoren, edozein ikastetxek, hala Irakasleen Klaustroarekin, nola Guraso-Elkartearekin, argibide gehiago jasotzeko bilera burutu nahi izanez gero, telefonoz eskatu ahal izango du.

## IRAKASKUNTZAKO MATERIALA

Material didaktikoak erreserba egiterakoan eskatu ahal izango dira, posta elektroniko bat adieraziz.
**Ikuskizun guztiek ez dute gida didaktikoa izaten.*

## SALNEURRIA

Sarrera bakoitza 4,50 eurokoa da. Prezio hau kostu erreala baino txikiagoa da, erakunde antolatzaileak eskaintzen duen diru-laguntzari esker.

Irakasleek ez dute sarrerarik ordaindu beharko.

## ERRESERBA EGUTEGIA

Erreserbak egiteko antolatzaileekin telefonoz jarri beharko da harremanetan, ikastetxearen datuak, erreserbatu nahi diren lekuen kopurua, arduradunaren izena eta hautatutako ikuskizuna adieraziz.

**Erreserbatzeko epea: urriaren 3tik 11ra** (9:30eatik 13:30eara).

Antolakuntzak ikastetxeari baieztatuko dio erreserba emailez. Eserlekuak, eskaera ordenaren arabera banatuko dira, hauek agortu arte.

## SARREREN ORDAINKETA

Ikastetxeek, sarreren zenbatekoaren % 100a sartu beharko dute hamabost egun lehenago Kutxako edozein bulegotan.

- Erreserbak zein ordainketak egiteko honako datu hauek adierazi beharko dira: Ikuskizunaren zenb. + Ikastetxearen Izena (laburtua) + Sarrera-kopurua: Adibidez: 3 - Mendia -70

- Dirua sartu eta gero, diru-sarreraren ziurtagiria bidali beharko da emailez antzerkira@gmail.com helbidera. Ondoren antolatzaileek eskolara bidaliko dute faktura.

- Ikuskizun baterako baino gehiagorako sarrerak hartu nahi dituen ikastetxeak, ahal duen neurrian, diru-sarrera bereiziak burutu beharko ditu ikuskizun bakoitzeko.

Kontu zenbakia: **KUTXABANK ES19 2095 5381 12 1061524996**

## HARREMANETARAKO

**Nagore Martinez**
Telefonoa: 653 756 480. E-mail: antzerkira@gmail.com

Se enviará información a los centros escolares para presentarles la programación de la temporada 2016/2017.

Si algún colegio desea realizar una reunión informativa posterior, tanto con el Claustro de Profesores, como con la Asociación de Padres podrá solicitarlo telefónicamente.

## MATERIAL PEDAGÓGICO

Los materiales didácticos se podrán solicitar al realizar la reserva, indicando un correo electrónico.
**No todos los espectáculos cuentan con material didáctico.*

## PRECIO

El coste de la entrada, para cada espectador es de 4,50 euros. Este precio está subvencionado por la entidad organizadora, ya que su coste real es superior al precio establecido.

La entrada para el profesorado es gratuita.

## RESERVAS

Para efectuar las reservas se deberá contactar telefónicamente con la organización, señalando los datos del centro, número de plazas reservadas, persona responsable y espectáculo elegido.

**Plazo de reservas: del 3 al 11 de octubre** (de 9:30 a 13:30 horas).

La organización confirmará por e-mail la asistencia a los espectáculos. Las plazas se adjudicarán por estricto orden de recepción, hasta agotar las mismas.

## PAGO DE ENTRADAS

Los centros deberán efectuar el ingreso del 100 % de las entradas con quince días de antelación, en cualquiera de las oficinas de la Kutxa.

- Para el ingreso de las reservas y los pagos se deberá hacer constar los siguientes datos: Nº espectáculo + Nombre del Centro (abreviado) + Nº de entradas: Ejemplo: 3 - Mendia – 70

- Una vez realizado el ingreso se debe enviar el resguardo del mismo por e-mail a antzerkira@gmail.com. Posteriormente la organización enviará la factura al colegio.

- Un colegio que desee adquirir entradas para varios espectáculos, deberá, si fuera posible, realizar un ingreso diferenciado para cada uno de ellos.

Nº de cuenta: **KUTXABANK ES19 2095 5381 12 1061524996**

## CONTACTO

**Nagore Martinez**
Tfno de contacto: 653 756 480. E-mail: antzerkira@gmail.com

# ESKOLATIK ANTZOKIRA

**VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA**
Argentinar Errepublikaren Pasealekua, 2
20004 Donostia / San Sebastián

**ANTZOKI ZAHARRA**
**TEATRO PRINCIPAL**
Kale Nagusia, 1
20003 Donostia / San Sebastián

**GAZTESZENA - Egia**
Baztan kalea, 21
20012 Donostia / San Sebastián

eszena

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

RÉGION
AQUITAINE

800 **ale** ejemplares 1,29 € **ale bakoitza** unidad

**ytantos**